

BEREZIA Zegama-Aizkorri maratoia iruditan

(<https://goierri.hitza.eus/2019/06/02/zegama-aizkorri-maratoia-iruditan/>)

Tailerra eta hitzaldia antolatu ditu DYAK Ordizian

(<https://www.facebook.com/dyakordizia/>)

<https://www.facebook.com/dyakordizia/> <https://www.instagram.com/dyakordizia/> <https://www.youtube.com/channel/UC5M2Fm%2F>



Ordizia (<https://goierri.hitza.eus/herriak/ordizia/>)

Gizartea (<https://goierri.hitza.eus/gaiak/gizartea/>)

2019 (<https://goierri.hitza.eus/2019/02>) (<https://goierri.hitza.eus/2019/02/13>) (<https://goierri.hitza.eus/2019/02/13>)

A. Vierbücher (<https://goierri.hitza.eus/sinadurak/a-vierbucher/>)

Ongizatea eta osasuna sustatzeko egiten duten lanaren barruan, DYAKo irakaskuntza eskolak pertsona oroentzat irekiak diren hainbat jarduera antolatu ditu otsailerako, eta izen-emate epeak irekita daude.

Batetik, bihotz-biriketako suspertze tailerra antolatu dute. Familian egiteko jarduera da, eta etxeko txikienek sei urtetik aurrera izan beharko dituzte. Gehienez hiru haurrek parte hartu ahaliko dute familia bakoitzeko. 17 urtetik gorakoek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Otsailaren 23an izango da hitzordua, 11:00etatik 13:00etara Ordiziako udaletxeko areto nagusian.

Lehen sorospenen hitzaldia

Otsailaren 26rako hitzaldia antolatu dute. Landuko duten gaia larrialdien eta istripuen aurrean zer egin eta zer ez egin izango da. Itolarrien, zaurien, traumatismoen, erreduren eta bestelako egoera batzuen aurrean nola jokatu behar den ikasi ahaliko da.

Lekua mugatua denez, aldezturik izena ematea komeni da. Horretarako, 943 46 46 22 telefonora deitu beharko da.

Goierriko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa zaigu. Egin zaituz HITZAKide! Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.